

/t/ren palatalizazioa Lekeitioko euskaran

Haizea Zubillaga* eta Iñaki Gaminde**

*Bilboko Irakasle Eskolako ikaslea, UPV-EHU

**Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila, UPV-EHU

Laburpena:

Artikulu honetan hizkuntz bariazioaren eremuan informatzaileen adina eta generoa aldagai sozialen arabera egindako azterketa baten emaitzak aurkezten dira. Azterketa egin ahal izateko Lekeitioko euskaran gertatzen den “i”ren osteko “t”ren palatalizazioaren arau fonologikoaren gauzapean biak aukeratu dira. Datuek adina aldagaiarekin korrelazio handia erakusten dute, berau lehendik ezaguna bazen ere, guk dakigularik, datuetan oinarrituta, egundo ez da zehaztu belaunaldien arabera. Beste alde batetik, generoaren aldagaiaren arabera andrazkoen joera kontserbatzaileagoa agerian jarri da. Emaitza hau nahikoa berria delakoa daukagu barietate honetako datuei dagokienez behintzat.

Resumen:

En este artículo se presentan los resultados de un análisis de la variación lingüística realizado en relación con dos variables sociales, la edad y el género de los informantes. Para hacer el análisis se han elegido dos realizaciones diferentes de la misma regla fonológica de palatalización de “t” tras la vocal “i”, conocidas en el euskera de Lekeitio. Los datos muestran una fuerte correlación con la variable edad, hecho éste conocido anteriormente, aunque no se había concretado en generaciones determinadas por medio de datos. Por otra parte, con la variable género se muestra una tendencia más conservadora entre las mujeres. Creemos que este resultado es novedoso en lo que respecta a los datos de esta variedad.

Hitz gakoak: Hizkuntz bariazioa, Soziolinguistika, Fonologia.

Palabras clave: Variación lingüística, sociolingüística, fonología.

Sarrera

Hezkuntzan euskararen bariazioa aipatzen denean, aipatzen bada, gehienez jota euskalkien gaia edo bariazio diatopikoa erabiltzen da. Eskuarki euskalkiak, euren mugak eta ezaugarriren bat edo beste erakusten da kasurik onenean. Hala ere, segitzen dugu aurkezten euskalkiak eta hizkuntza bera aldaezina eta iraunkorra balitz bezala; nahiz batzuetan hizkuntzak aldatu egiten direla gauza jakina dela esan. Hau esatea irakats praktikarekin kontraesanean dagoela uste dugu.

Kontraesan berbera aurkitzen da bariazioaz egiten diren ikerketetan, izan ere, kasu gehienetan bariazio geografikoa baino ez da ikertzen; hau gertatzen da neurri handi batean euskal dialektologia klasikoak eragineko inertziagatik. Horrelako lanetan informatzaileek, esate baterako, NORM (nonmobile, older, rural, males) ezaugarriak betetzen dituzte (Chambers eta Trudgill, 1994) eta gainera puntu bakoitzeko informatzaile bakarra erabili ohi da.

Joera hau azken urteotan aldatzen hasi den arren (Aurrekoetxea, 2007 eta 2008, Aurrekoetxea eta Ormaetxea, 2006, Ormaetxea, 2008, besteak beste¹), oraindino bariazioa ikertzean oso lan gutxitan hartzen dira kontuan faktore sozialak.

Bariazioaren ikerketetan faktore sozialek eta are estilistikoek daukaten garrantzia azpimarratzeko eman dezakegun beste datu bat da euskal hiztun komunitateak azken urteotan eduki duen aldakuntza bera.

Miren Azkaratek idatzi duen moduan (Eusko Jaurlaritza, 2008), euskararen hil kanpaiak jo dituztenei aitzia, euskal hiztun-elkarteak azken hamarkadetan irauteko ez ezik, indarberitzeko ere garrantzi handiko urratsak egin ditu. Erabilera-eremuak ugari egin zaizkigu, euskaraz aritzeko gai den hiztun-elkartea ere, sasoi batekoarekin alderatuta, gazteagoa da. Geroxeago Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak argitaratzeak ematen digun hausnartzeko aukera paregabeaz ohartarazita mukurutzen du bere sarrera.

Jaurlaritzak (2008) egineko Inkesta Soziolinguistiko horren emaitzek abiapuntu interesgarria eman diezagukete gaiari oratzeko. Esate baterako, bertan esaten zaigu Bizkaiko populazioaren %23 elebidunak direla. Adinaren arabera, 16-24 urte artekoen %49,2 elebidunak dira; adin piramidean gora egin arauka portzentajea gutxituz doa, zaharrenen multzoan izan ezik. Elebidunetan %27,5 euskal elebidunak dira, %25,1 elebidun orekatuak eta %47,3 erdal elebidunak. Azkenik, transmisioaren datuei bagagozkie, %12,4k ama hizkuntzat euskara eduki dute, %3,8k hizkuntza biak eta %83,8k gaztelania.

Datu hauen argitara, argi dago euskararen barietateetan azken urteotan aldaketa asko eta handiak gertatzen ari direla, batzuk une batean martxan abiatu dira eta beste batzuk beste une batean. Era berean, aldaketak ez dira beti gertatzen populazioaren estraktu guztietan. Beste leku batzuetan esan dugun moduan (Gaminde, 2009, 2010b, Laka eta lag. 2008), sasoi heldu da euskararen bariazioa aztertzekeo aldagai geografikoez gain aldagai sozialak kontuan hartuta, egoera bera ahalik ondoen ulertzekeo hala nola fenomenoaren bilakaera ere.

Hori guztia gogoan, gure lantxo honetarako Lekeitioko euskararen gertatzen den arau fonologiko baten gauzapean desberdintasuna hartu dugu aztergaitzat. Baina, gure azterketa honetan jakin gura izan dugu aldagai sozial biren arabera nola hedatzen den desberdintasun hori. Aldagai sozial horiek generoa eta adina izan dira eta biak hartu ditugu gomutan bai informatzaileen aukeraketa egitean, bai datuen azterketa egitean ere.

Gauza jakina da Lekeitioko euskararen /t/ palatalizatu egiten dena (Hualde, Elordieta eta Elordieta, 1994, besteak beste).

¹ Erreferentzia gehiago ikus daiteke EUDIA ikerketa taldearen orrian.

Lekeitio> Lekitto
egiten> etten
aita> aitta
aitita> aittitta
maitia> maittaa

Palatalizazioa “i” bokal osoaren eta bokal erdiaren ostean gertatzen da; araua ondoko era honetara adieraz dezakegu:

t> tt/i ____

Era berean palatalizazio honek gauzapan bi dauzkala esaten da: “tt” eta “tx”². Bigarrena berriagoztat jotzen da eta lehena, ostera, belaunaldi zaharren hondartzat. Goiko adibideak ondoko era honetara ere gauzatzen dira:

Lekeitio> Lekitxo
egiten> etxen
aita> aitxa
aitita> aitxitxa
maitia> maitxia

Leku edo ingurune berean gauzatze bi gertatzea, bestalde, nahiko zabalduta dagoen fenomeno dugu (Gaminde, 2003, 2010a).

Hemen aurkezten dugun lan honen helburua arau fonologiko batean gertatzen diren gauzapan bi aldagai sozial biren arabera (adina eta generoa³) zelan gertatzen diren aztertzea da.

Lana hiru zatitan banatuta aurkezten dugu. Bigarren zatian datuak jasotzeko erabili dugun metodologia aurkeztuko dugu. Hirugarren zatian datuen euron azterketa egingo dugu. Azkenik, laugarren zatian ondorioak eta hurrengo lanetarako iradokizunak laburbilduko ditugu.

2. Metodologia

Aukeratu dugun arauaren gauzapan bakoitzaren hedapena aztertzeko erabili dugun metodologia denbora aparentean egiten diren ikerketetan koka daiteke (Chambers eta Trudgill, 1994). Metodologia honek inpliketzen du aldi berean belaunaldi askotako informatzaileen datuak jasotzea, denbora tarte aparente horretan gertatzen diren aldaketak kokatu ahal izateko. Era berean, adina aldagai garrantzitsua den edo ez azter daiteke.

² Euskararen ortografian ohikoak diren ikurrak erabiltzea erabaki dugu irakurketa errazteko eta letra moldeen arazoa ekiditeko.

³ Gurasoen jatorria ere erabili dugu baina aldagai honek ez du ezelako eraginik islatu datuetan.

Informatzaileen adinaren aldagaiarekin batera, generoaren aldagaiaren eragina ere aztertu nahi izan dugunez gero, hartu dugun laginean gizonzkoen eta andrazkoen proportzioa orekatuta egon behar izan da.

Eduki ditugun informatzaileak denetara 59 izan dira; 28 gizonzko eta 31 andrazko. Euren adina 20 eta 83 urte artekoa izan da. 1. taulan egin ditugun 6 adin tarteetan arabera gizonzkoen eta andrazkoen kopuruak ikus daitezke.


Adin Tarte	Gizonak	Andreak	Orotara
1 (20-30)	4	6	10
2 (31-40)	6	4	10
3 (41-50)	5	5	10
4 (51-60)	5	5	10
5 (61-70)	5	5	10
6 (71<)	3	6	9
Orotara	28	31	59

1. taula: Informatzaileak adin tarte eta generoaren arabera.


Akustikoki herskari ahostunak, ahoskabeak eta ahoskabe hasperendunak bereizteko, hasierako gunean, tasun fonetiko garrantzitsutzat jotzen da VOT (voice onset time) deritzona (Lisker & Abramson-en, 1964). Hauen arabera herskari bat ahoskatzerakoan, bi fase bereiz ditzakegu: hersketa eta leherketa. Herskariaren ondoren bokal bat badaukagu, ahots-korden dardara periodikoa hiru momentu desberdinetan has daiteke. Ahotsaren dardara leherketa baino lehen hasten bada, VOT negatiboa izango dugu. Gainerakoan, VOT positiboa, laburra herskari ahoskabeetan eta luzea hasperendunetan. Hau hasierako gunean dauden herskariei dagokie. Beste ingurune batzuetan kontrastea beste ezaugarri fonetiko batzuen bidez gauzatzen da.

“tt” herskari ahoskabeen ezaugarri akustikoak betetzen ditu, hau da, hersketaren ostean leherketa barraren aztarna ikus dezakegu espektrogrametan. Hala ere, hasierako gunean ez da egundo ere agertzen palatalizazio arauaren emaitza delako. Afrikatuaren kasuan hersketaren ostean igurtzieraren zarata luzea agertzen da. Herskariak leherketa barra luzea eduki dezakeen arren, beronen iraupenaren eta afrikatuaren zarataren iraupenaren aldea datza euren arteko bereizgarri akustikorik garrantzitsuenak.

1 eta 2 irudietan argi agertzen da bien arteko aldea ikuspuntu akustikotik. “tx”ren kasuan afrikatuaren frikzioa argi eta garbi agertzen den artean (2. irudian), herskariaren kasuan ez dago horren aztarnarik ere (1. irudian).



1. irudia: “tt”en espektroa “aitta” berban; 80 urteko informatzaile andrazkoa.




Datuak jasotzeko oso inkesta laburra egin da; hiru hitz baino ez ziren aukeratu informatzaileei galdetzeko. Galderak gaztelaniaz egin ziren eta eskatu ziren hitzak “abuelo” (aitxitxa/aittitta), “Lekeitio” (Lekitxo/Lekitto) eta “gato” (katua) izan ziren, azken berba hau erabili zen aztertu nahi izan genuen aldaketa zein zen ez susmatzeko. Lekukoek emandako erantzunak grabatu baziren ere ez dugu azterketa akustikorik egin; haatik, gure pertzepzioaz baliatu gara entzun ditugun hotsen ebakeren arabera multzo batean edo bestean sailkatzeko.

Behin transkripzioak eginez gero eta informatzaileak palatalizazio arauaren gauzapan bien arabera sailkatuz gero, azterketarako aldagaiak definitu dira eta euron arabera egin da hurrengo sekzioan agertzen den azterketa. Datuetan ager daitezkeen balizko korrelazioak aztertzeko, R programaren (RUCA, 2010) bidez χ^2 eta Fisherren estatistikoak lortu ditugu.

3. Datuen azterketa


Sekzio honetan aurrekoan deskribatu dugun metodologiaren bidez jaso ditugun datuak eta euron azterketa aurkeztuko ditugu, horretarako adina eta genero aldagaiak kontuan hartuko ditugu.

“t”ren palatalizazioaren emaitza orokorrak ikusten baditugu, /tt/ %20,34koa da eta /tx/ %79,66koa (3. irudia).



3. irudia: “tt” eta “tx” gauzapen bakoitzaren portzentajeak.


Gauzapen bien dispersioa 1. taulan zehaztu ditugun adin tarteen arabera aztertzen badugu (4. irudia), argi ikusten da “tt” adin tarte zaharragoetan gehiago agertzen dena.



4. irudia: “tt”ren erabilerearen hedadura adin tarteen arabera. X ardatzean adin tarteak adierazten dira eta Y ardatzean jasotako erabilpen kopuruak.

Datu hauetatik atera daitekeen ondorioetako bat da aldaketa arteragoko adin tartetan hasi zela gauzatzen, izan ere, 5 eta 6 adin tartetan %50ean banatzen da bakoitzaren erabilera. Bestalde, argi agertzen da, 2 eta 3 adin tartetan “tt”ren erabilera %10ekoa izan arren, berau desagertuz doana.

Genero aldagaiaren arabera aztertzen baditugu datuak, /tt/ren erabilera gizonezkoen artean %7,14koa da eta andrazkoen artean %32,26koa (5. irudia).



5. irudia: “tt”ren erabileraren portzentajeak generoaren arabera.

Alde hau adin tarte guztietan gertatzen denez gero, esan dezakegu andrazkoak kontserbatzaileagoak direla gizonezkoak baino ebakera honi dagokionez.

Palatalizazio arauaren ondorioz gertatzen diren gauzapenen eta aldagaien artean ikusi berri ditugun erlazio hauek estatistikoki ere badirudi nahikoa esanguratsuak direla. Horrela bada, adinaren eta generoaren araberako erlazioak χ^2 eta Fisher-en testa estatistikoen arabera oso altua da (2. taula), altuagoa adinari dagokionez generoari dagokionez baino.

	Adina	Generoa
χ^2	p<0,0036	p<0,017
Fisher	p<0,003	p<0,023

2. taula: χ^2 eta Fisher-en testaren emaitzak.

4. Ondorioak

Lehenengo eta behin uste dugu ezen, era honetako lanek argibide franko eman diezazkiguketela bariazioaren azterketetan. Behin zenbakiek eragiten diguten ikara gaindituta, beste lan tresna bat besterik ez dira aldagai sozialen azterketetan eta horrenbestez oso erabilgarriak direla begitantzen zaigu.

Gure lantxo honen ondorioei erreparatuta, esan behar dugu adinaren araberako “tx” ebakerraren hedapenarena intuizioz jakin dugun zerbait izan dela, gure datuek hori konfirmatu egiten dute; baina, era berean zehaztu egiten dituzte gauza bi:

- a) Aurreko adin tarteetan bilatu beharko litzateke aldaketaren abiaburua.

b) 60 urtetik gorakoek baino ez dute “tt” ebakera erabiltzen proportzio esanguratsuz, hauen artean ere, ebakera hau erdiek baino ez dute egiten.

Beste alde batetik, agertzen den generoen araberako desberdintasuna datu berria delakoan gaude, fenomeno eta barietate honi dagokienez bederen. Oso datu interesgarria dela uste dugu, izan ere, hemen ikusten den bezala, andrazkoak kontserbatzaileagoak dira gizonezkoak baino.

Hori gomutan usten dugu era honetako barietatearen gaineko lanetan balizko desberdintasun hori aurreikusi beharko litzatekeela inkestak egitean eta informatzaileak aukeratzean.

5. Bibliografia

Aurrekoetxea, G., (2007) “Aproximación sociolingüística a la lengua vasca”, in *Conferencias sobre la lengua y cultura del mundo de habla hispana, Departamento de Estudios Hispánicos, Universidad de Estudios Extranjeros de Kyoto (Kyoto, 2006)*, Kyoto, 5-35.

Aurrekoetxea, G. (2008) “Barietate soziolinguistikoa Dimako euskaran”, in *Euskalingua* 12, 17-26

Aurrekoetxea, G. eta Ormaetxea, J. L. (2006) “Euskararen Atlas Sozio-Geolinguistikoa” ikerketa-proiektua”, *Euskalingua* 9, 157-163.

Chambers, J.K. eta Trudgill, P. (1994) *La dialectología*. Visor, Madril

EUDIA (2010): <http://sites.google.com/site/edakeudia/>

Eusko Jaurlaritza (2008) *IV Inkesta Soziolinguistikoa*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Gaminde, I. (2003): "Mungialdeko herskariaren eta afrikatuaren txandaketaz" *Euskalingua*-2

Gaminde, I. (2009): “Hiztunen generoaren eta adinaren pertzepzioaz” BAT-71. (151-164)

Gaminde, I. (2010a): “Bilboko gazte euskaldunen ezaugarri linguistikoez” in *Mendebalde Kultura Alkartea: Bilbon Mundua Ikusi*. Bilbo. (35-59)

Gaminde, I. (2010b) *Bizkaiko Gazteen Prosodiaz: Euskaraz eta Gaztelaniaz*. Mendebalde Kultura Alkartea eta Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo.

Hualde, J.I., Elordieta, G. eta Elordieta, A. (1994). *The Basque Dialect of Lekeitio*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Laka, E.; Olondo L. eta Gaminde, I. (2008) "Bermeoko gazteen euskararen aditz morfologiaz" *Euskalingua* 13 (27-36)

Lisker, Leigh eta Arthur Abramson (1964): "A cross-language study of voicing in initial stops: acoustical measurements." *Word* 20:384-422.

Ormaetxea, J. L. (2008) "Otxandioko hizkera: adinaren araberako bariazioa", *FLV*. 108, 249-262.

R-UCA (2010) "R proyecto" <http://knuth.uca.es/R/doku.php?id=inicio>